

Euskal antzerkigileen egoera prekarioaz ideia batzuk

Egileak: antzerkigile talde bat
(Oier Guillanek helarazia 2018-01-17)

Kokatze gisa: koiuntura berri bat

Euskaraz egiten den antzerkiak egoera ez ohikoa bizi du: azken hamar urteetan eraldaketa bat eman da euskal eszenan, eta euskaraz lan egiten duten talde erreferentzialen kopurua nabarmen igo da, euskara hutsez taularatzen diren antzezlanen kopurua ere asko hazi delarik. Azken urteetan Euskal Herriko eszenan esperimantazioa, ikerketa eta oihartzun soziala duten lan esanguratsu asko euskaraz taularatu dira, euskaraz egin dituzte sortze prozesuak, bertako sortzaileen testu eta dramaturgia berriekin. Kasu askotan erdarazko bertsiorik gabe taularatu dira azken urteetan publiko gehien erakarri eta inpakto kultural handiena eduki duten euskal produkzioak.

Ahalduntze prozesu bat eman da, eta horrek kulturgintzaren testuinguruan ahots berri batekin kokatu du euskal antzerkigintza.

Errealitateak ez datoz bat

Testuinguru berezi horrek are nabarmenago utzi ditu agerian egun arte eszenikoen azpiegituren eta kultur politiken errealitatearekin dagoen egiturazko talka: euskaraz sortzen den teatroak erdararen neurrira sortutako eta egituratutako sistema oso batean egin behar du bidea. Antzerki programazioak, publikoa sortzeko mekanismoak, komunikabideak, promozio kanpainak, instituzio publikoek antzoki publikoetan bultzatutako programazio politikak... Ez dago euskal teatroaren errealitatea erantzuten dion laguntzarik, sistemarik, azpisistemarik, ziklorik, erakuslehorik, mekanismorik.

Euskal teatroari exijitzen zaio erdal merkatuaren neurrira eraikitako azpiegitura sistema batean erdal teatroak duen irismenarekin lan egitea (erdal komunikabideen bozgorailuarekin, publiko potentzialarekin, hiriburuetako programazio irizpideekin). Eta lortzen ez duenean, guztiz irreal delako, kalitate gutxi duen edo publikorik eramaten ez duen mezua zabaltzen da, noren eta arduradun publiko batzuen aldetik.

Prekarietate mota ezberdinak

Ikuspegi kultural batetik euskal teatroa oso momentu potente batean dago, baina errealitate kultural hori eta azpiegitura eta kultur politika publikoen errealitateak ez datoz bat. Beraz, euskal teatroak egun, hizkuntz hautua aintzat hartuta, prekarietate mota ezberdinak bizi ditu:

-Prekarietate estrukturala:

Euskal teatroak, nahiz eta egoera potentean egon, arrotza da bere herrian. Sortzaileek berauek sortu edo bultzatu behar izaten dituzte laguntzak, zirkuituak, programatuak izan ahal izateko moduak, komunikazio planak. Babesgabetasuna osoa da beraz.

-Prekarietate ideologiko-praktikoa, kultur balioen desprestigioa:

Egun antzerki eta konpainia asko kultur elkarteak dira, edo irismen mugatuko kooperatibak, edo biziraupen zaileko enpresak.

Kultur elkarte diren kasuetan, diru laguntza publikoen ateak zarraturik dituzte, azken hamarkadetan bultzatu den eredu kultur-enpresaren aldekoa izan delako soilik, etekin ekonomikoaren arabera kultur proiektuak saritzen eta laguntzen direlako batik bat. Nahiz eta kultur elkarte diren taldeek ere egiten dituzten emanaldiko kontratuak, ordaintzen dituzten zergak, eta abar. Kultur enpresen aldeko hautu hutsak, beste edozein eredu laguntza publikoen logikatik bazter uzteak, kalte ikaragarria egin dio kultur ekosistemari, ez duelako inolako momentutan kontenplazten antzerki berritzailea, esperimentazioa, ikerketa, euskaraz hutsez lan egiteko aukera. Eredu hori errotik aldatzea edo gutxienez eredu ezberdinen arteko elkarbizitza posible egitea, ezinbesteko urratsa da arte eszenikoetako egituratze penagarriari buelta emateko.

Frantziaren eraginpeko Ipar Euskal Herrian egoera oso bestelakoa da: intermitentziaren figura existitzen da. Kulturako langileek, lan ikaragarria eginez, posible dute kotizatu eta langabezia izan. Hori une honetan Hego Euskal Herrian zientzia fikzioa da. Are gehiago, Frantziar estatuan antzerki konpainiek debekatua dute enpresa izatea, antzerki konpainiak kultur elkarte izan behar dira halaberrez. Ez gara, noski, Frantziar estatuak bere sistemarekin dakartzan beste arazoak aipatzen hasiko (hizkuntza gutxituen bazterketa sistematikoa), baina kultura sozialki prestijiatuagoa dagoela zalantzarik ez da.

Hego Euskal Herrian laguntzak jasotzeko enpresa izan beharra dago, ez kultur elkarteak; saritzen dira numeroak eta emaitza ekonomikoak, ez sortze prozesuak eta ekarpen kulturalak.

-Norbanakoaren prekarietate kolektiboa:

Idea batzuk:

.Arte eszenikoetako langileon langabezia tasa %80aren ingurukoa dela aipatzen da.

.Autonomoetan alta ematea lanbide hauetan ia ezinezkoa da ez bada beste era bateko lan baten sostengurik (irakaskuntza, ostalaritza, kazetaritza...).

.Proiektu "ohiko" batean kasurik onenean aktore batek hilabete t'erdiko kontratu bat lortuko du entseguengatik, eta gero emanaldiko 200 euro inguru garbi aseguratuko dizkion eguneko kontratazioa, minimo duina. Hori urtean behin lortzea pagotxa da.

.Kasurik “normalenetan” entseguak kobratzeko zailtasunak egongo dira, edo oso gaizki ordainduak egongo dira; emanaldiko 100-150 euro artean kobratzea ere sarri gerta daiteke.

.Antzezlan bat estreinatzeak egun ez du ezer segurtatzen, soilik enpresa gisa oso egituratuak dauden antzerki konpainiek lortuko dute emanaldi kopuru esanguratsu bat.

.“Artistak y toreros” epigrafea existitzeak balio sinboliko berezia dauka: ez soilik toreroek islatzen duten gizarte dekadentziagatik, baita ere bertako errealitatearen beharrei erantzuten ez dion kultur ikuspegi eta mentalitate arkaiko bat islatzen duelako.

-Euskaraz lan egiten duen sortzailearen prekarietate bikoitza:

Aipatu ditugun kontuok Euskal Herrian lan egiten duen edonork pairatzen du, baita erdaraz ere: langile estatutu propioen gabezia; langabezia tasa altua; lan baldintza txarrak; beste lan batzuekiko dependentzia kotizatu, egunerokoan biziraun eta inoiz erretiratu ahal izateko. Zentzu horretan, Euskal Herriko teatrogile oro dago egoera tamalgarrian, euskaraz zein erdaraz lan egin.

Euskaraz lan egiten duen antzerkigileari egoera horren zamari euskal ekoizpenen bazterketa gehitzen zaio: udal askotako programazioetan sartzeko ezintasuna euskaraz izateagatik (udaletxe askotan euskararen egunean programatzera mugatzen dira), euskaraz programatzekotan publikoa eraman dezaketen produktu jakin batzuk lehenesten dira (haur antzerkia, telebistako aktoreek egindakoa, diruz oso lagundutako superproduzioak...), hiriburuetakako erakusleihoetan sartzeko zirrikitu eskasia.

Funtsean, euskarazko arte eszenikoen errealitateari egokitzen ez zaion azpiegitura eta diru laguntza sistema bati egin behar dio aurre euskal sortzaileak, berez edozein sortzailek duen egiturazko prekarietateaz gainera.